

Hernani eta probintziako 220 igerilari VII. Gabonetako Sarian

■ Larunbat honetan da, abenduaren 29an ■ Kiroldegian, goizeko 09:30etan hasita ■ Kirol Elkarteko Igeriketa sailak antolatzen du ■ Kirol eskolarra bultzatzea du helburu.

HERNANIKO Kirol Elkartek Gabonetan Igeriketa Saria antolatzen du urtero. Aurten zazpigarren edizioa du eta iaz bezalaxe ia Gipuzkoa 220 igerilarietik gora bilduko dira kiroldegiko igerilekuan. Herri-tarrak ez ezik, beste herri askotatik etorriko dira: Tolosa, Donostia, Ordizia, Errenteri...

Infantiletatik seniorretara bitarteko kategoria guztiak arituko dira. Debera 100 metroko 5 proba izango dituzte: tximeletan, bizkar, bular, librean eta lau estiloak.

Luis Aizpurua Kirol Elkarteko lehendakariak Kronikari adierazi dionez, proba honen helburua da, batez ere, igeriketa eskolarra bultzatzea. "Igeriketa sailean benjaminetatik hasi eta kategoria guztiekin egiten dugu lan. Sari honekin gure asmo nagusia da gaztetxoek bultzatzea eta promozionatzea. □



Hernaniko abesbatzetako jendea kantari iazko Gabon Kantuen kontzertuan.

Arraun Elkarteko batzarra

■ Urteroko asanblea dute gaur, 19:30etan, Biterin.

ARRAUN Elkartek batzarra du gaur arratsaldean.

Lau punturi buruz arituko dira: aurtengo aktibitateak; urteko balantzea; datorren urteko plana eta 2002ko aurrekontu proposamena. □

Hitzaldia, Batasunak antolatua

■ Kontzertu ekonomikoari buruzko hitzaldia da.

BATASUNAK alderdiak kontzertu ekom hitzaldia antolatu du gaurko. Konbenio ekonomikoaren kontrakoa da. Prentsa oharrean diotenez, Hego Euskal Herriko biztanleek ordaintzen dugun dirutik 500.000 miloi Espainian geratzen dira urtero.

Hizlariak Nekane Jurado eta Ixidro Esnaola izango dira. Izenburua: *Iruzurrik ez! Kontzertua menpekotasuna da!*. Gaur, 19:00-

BERTSOLATA

'Garrotin' emanaldia

■ Kataluinako inprobisatzailak, gaur, Garin tabernan.

IRAULIO Panttalone Hernaniko bertso eskolak *Garrotin* emanaldia antolatu du Eguarri guztietako *Bertso Lataren* barruan. Kataluinako inprobisatzailak dira eta 22:00etan hasita, giro ederra jarriko dute *Garin* tabernan.

Bihar, 19:00etan, Kaleko Tra-ma, Karkabatik abiatuta. □

2001-eko azken plenoa, gaur

■ 10 puntu ditu eguneko gai ordenak ■ Arratsaldeko 19:00etan da

Udalak gaur egingo du urteko azken plenoa. Batzarrak 10 puntuko gai ordena du lanerako. Horietako puntu batzuk dira autobus urbanoaren prezioa errebisatzea eta zenbait ordenantza aldatzeko proposamenak: trafikoko multei dagokiena bata, eta Usoko Errekan ganadua ibiltzekoa bestea.

ARAU SUBSIDIARIOAK
Joan den astelehenean Arau Subsidiarioei buruzko pleno berezia egin zen, EA-EAJ udal taldeak eskatuta. Plenora, or-

dea, aurreko Hirigintza batzordetik zetorren puntu bakarra ekarri zen zen, Gobernu taldeak zekarrena. Eta horixe onartu zen Batasunaren aldeko eta EA-EAJ-ren kontrako botoekin. PSE-EE ez azaldu.

Plenoan onartu zen dokumentuaren arabera, udala azken bi urteotan modu efikazian ari da herriaren erronka urbanistikoak aurrera ateratzen. Aurrera begira berriz, udal taldeak hirigintza azterketa aginduko du, egin beharreko aldaketak horren arabera egiteko.

EA-EAJ poza, kezka eta kejak ere izan zituen Gobernu taldearen proposamenaren aurrean. Poza Arau Subsidiarioei buruzko eztabaida ireki delako. Kezka Gobernu taldearen planteamenduari kontraesan sakonak ikusten dizkiolako. Eta, keja EA-EAJren mozioa ez zelako botatu ere egin plenoan.

GOBERBU BATZORDEA BIHAR

Ostiralean Gobernu batzordea izango da eta 20 puntuko gai ordena dago mahai gainean. □

ZAHARREN EGOITZA

Eguarritako programa

■ AURTENGO Gabonetan ekintza asko dituzte Sandiusterrin, besteak beste, txapelketak: toka, seiko urrea, puntua, igelarena eta Bingo Berezia:

Eguna/Ordua	EKINTZAK
28 Ostirala, 17:30	Igel Txapelketa
29 Larunbata, 17:30	Ezko en emanaldia
30 Igandea, 17:30	Puntu Txapelketa
31 Asteleh., 10:30	Toka Txapelketa
31 Asteleh., 17:30	Bingo Berezia.
02 Asteazk., 17:30	Bingo Berezia.
05 Larunbata, 17:30	Seiko Urre Txapelketa



**Eurorako presta zaitez,
egin oparia zure buruari!**

Jantzi zure ordenagailua mahai praktiko eta eserleku komodo batekin.

Preziorik onenak **Arkan**.

Ezagutu *Uztarri* estanteria; merkatuan bakarra da.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-



**GALARRETA JAI-ALAI
FRONTOIA**

Urte zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi. Zorionak guztioi.

GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- 1. partidua: ZALAKAIN-BADIOLA / AGIRRESAROB-ETXEBERRIA
- 2. partidua: EZKURRA - URKO / ZEBERIO II - IRIARTE
- 3. partidua: ELIZALDE-AUZMENDI / MATXIN - TXIKURI
- 4. partidua: ZEBERIO I-MENDIZABAL / SARASUA - SANDIO

Ipuin kontaketa eta txokolatada gaur Karobi elkartean

■ Ipuin kontaketa 17:00etan izango da ■ Txokolatada 18:00etan ■ Horrez gain, atzo ere Biterin ipuin kontaketak izan ziren eta 45en bat ume bildu.



Itziar Zubizarretak txoratuta eduki zituen 3-4 urteko umeak, atzo.

KAROBÍ Elkartean txokolatada eta ipuin kontaketa izango dira, gaur, lehenbiziko urtemuga dela-eta, antolatu dituzten ekintzen artean.

Karobi elkartean bertan izango dira: ipuin kontaketa 17:00etan; txokolatada 18:00etan.

ATZO, BITERIN 45 UME

Atzo Biterin egin zen ipuin kontaketa 45 ume bildu ziren. Hilabetero egiten dute eta Itziar Zubizarreta izaten da kontalaria.

Urtarrilekoa datorren asteazkenean izango da, hilak 2, goizeko 11:00etan hasita. □

Kantuz eta Ozenki abesbatzak bihar Kontzertu Sakroan

■ Milagrosan da, arratsaldeko 19:30etan ■ Igandean, berriz, Musika Bandak emango du kontzertua Sandiusterrin, eguerdiko 12:00etan.

EGUBERRI buelta kantu eta kontzertu garai oparoa da Hernanin. Kantuz Abesbatzak antolatuta, ostiralean, abenduak 28, Sakro Kontzertua izango da Milagrosan. Aurten bigarren aldia da. Iaz Kantuzek bakarrik eman zuen kontzertua, baina, aurten Ozenki ere

kobidatzea erabaki dute antolatzaileek.

Ozenki Abesbatzak 5 kantu abestuko ditu Imanol Kamio zuzendari duela. Kantuz, berriz, 10 kantu abestuko ditu eta bi zuzendari izango ditu: Nuria Barba eta Jabier Zubimendi.

MUSIKA BANDA

Musika entzuten gozatu nahi duenak igandean ere aukera du Sandiusterrin egoitzan. Musika Bandak kontzertua emango du eguerdian. Normalean 13:00etan izaten bada ere, igandekoa 12:00ean izango da, Manuel Sagarna zuzendari duela. □

ERREMONTEA

Gaur hasiko da Galarretan Binakako Erremonte Txapelketa

■ Bost bikote: Ezkurra-Urko, Altuna I-Izagirre, Al-tuna II-Etxabe, Iñigo-Lizaso eta Zeberio II-Iriarte ■ Gaur Ezkurra eta Urko Zeberio II eta Iriarteren kontra ■ 16:00etan

Galarretan hasiko da gaur Binakako Erremonte txapelketa. Bost bikote fuerte eta berditsuk jokatu dute eta estu dira gauzak. Hala ere, Ezkurra-Urko eta Altuna I-Izagirre dira adituen faboritoak.

Txapelketako lehen fasea ligila izango da, denak elkarren kontra. Gaur ikusiko faboritoek zenbat lezaketzen Ezkurak eta Urkok Zeberio II eta Iriarte izango baitituzte aurrean. Jaialdia 16:00etan

hasiko da eta txapelketakoa bigarren partidua da. Beste hiru partidua hauek dira: Zalakain-Badiola/Agirresarobe Etxeberria; Elizalde-Auzmendi/Matxin-Txikuri; eta Zeberio I-Mendizabal/Sarasua-Sandio.

“Olentzero joan zaigu...”



Jaione Tejedor ariketa bat egiten.

MAINDIREA ere izozteko moduko hotzetan ibili behar izan zuen Eguberri bezperan eskean kantari atera ziren taldeek. Binaka eta hirunak atera zirenak kontatu gabe hamar talde inguru izango ziren denera, urteroko ohitura zaharrari eusten. Gauean, urtero bezala Olentzero etorri zen herrira txikien pozak

eta ilusioak goxatzera.

Kantari ateratzen diren ia talde dena 24an ateratzen badi-ra ere, bada talde bat urte zaharretan ateratzen dena: Ohitura Zaharrak taldea. Aspaldiko ohitura da hori eta, aurten ere, bertso eskaloen laguntzaz kantari agurtuko dute urtea. Azaldu nahi duenak libre du joatea: 18:00etan, Gudarien plazan. □

‘2002 Hernani’ Kronikako kalendariora



Floridako gazteak komunioa egin aurreko astean. Argazkia kalendarioran dagoenetako bat da.

■ AURTEN ere Kronikak egutegia atera du urteko argazki bilduta. San Joanetan omenduak, ihauteriak, Floridako emakumeen bazkaria, Manuel Yabeni egindako omenaldia, Soziedate arteko mus txapelketa, Extremeno eguna, komunioa egin behar duten gaztetxoak eta abar azaltzen dira argazki-etako batzuk. Honako puntueta dago salgai: Floridan Bar Fronton tabernan; kioskoak: Zinkoenea, Konde eta Plaza Berrian. Okindegiak: Antziola eta Dorronsoro. Doberan eta Kronikan bertan ere bai. □

HERIOTZAK

Luis Redondo Navarro

Asteartean hil zen 86 urte zituela

Santiago Apezetxea Loiarte

Asteartean hil zen 38 urte zituela

Hileta elizkizuna, gaur osteguna arratsaldeko zazpitan, Juan Bataiatzailea parrokan.

BADATZ ERREGEAK, BADATZ

Isimelata

Harikak - Regalos

ZATZ TXIMELETARA ZURE OPARIK AUKERATZERA

Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ELIKAGAI KALITATEKO EUSKAL LABELA

PINEDA HARATEGIA

KALITATEA

Kardaberaz 32 - Tel 943 551643 - HERNANI

GARANTIA ZIURTAGIRIA

MARI FET

ARRANDEGIA

Zorionak eta ondo izan MARI FETik.

Nagusia 36 Orkolaga 17

943 55 04 89 943 55 27 41

HERNANI

Zorionak eta ondo izan jai egun hauetan.

OKINDEGIA ANTZIOLA

Eguneroko ogirik onena!

ANTZIOLA AUZOA, 3

Tel. 943 55 17 91

HERNANI

SKODA

FABIA

Skoda Fabia Iritsiko den jendea rentzat

MENABI

Txingurri pasealekua 26 - Herrera - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43